



RASFF TXOSTENA

ANIMALIEN ELIKADURA ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


- ★ Jakinarazpenen kategorizazioa
- ★ Jakinarazpenen jatorria
- ★ Jakinarazitako arriskuen tipologia
- ★ Tartean dauden lehengaiak eta pentsuak
- ★ Eranskina.. Laburpen-koadroa

2021eko LEHENENGO LAUHILEKOA 

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2021eko lehenengo lauhilekoan, animalien elikagaiekin lotutako **72 jakinarazpen** egin dira; horietatik **7 alertak** izan dira, **61 informazio-jakinarazpenak**, **3 mugan egin diren ukapenak** eta **1 albistea**.

Egindako kontrol motari dagokionez, **34 pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako kontrol ofizialek igorri dituzte**; **28 industriaren beraren autokontroletan detektatu dira**, **5 kontsumitzaileen kexak izan dira**, **4 Mugako Ikuskapen Postuek (MIP) igorri dituzte**, eta **1 komunikabideen jarraipenak eragin du**.



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Aldi horretan, **72 jakinarazpenetatik 17tan** (% 24), kaltetutako produktuaren jatorria **hirugarren herrialde** bat izan da. Hauek dira jakinarazpen gehienetan tartean izan diren hirugarren herrialdeak: Txina (4) eta Brasil (4).

Belgika izan da jakinarazpen gehien (27) egin duen herrialdea, eta, jarraian, **Austria (11)**.

JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA


Aldi horretan detektatutako arrisku gehienak **mikrobiologiarekin lotuak izan dira (% 54), eta horien atzetik daude baimendu gabeko gehigarriekin (% 19) lotutakoak.**



Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **salmonellak eragin ditu jakinarazpen gehien (72 jakinarazpenetatik 34).** **Salmonella**, batik bat, lehengai hauetan detektatu da: **soja-irina, ekilorez egindako produktuak, koltza-opilak eta txakurrentzako mastekagarriak.**

TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK ETA PENTSUAK

Produktuen arabera, **lehengai**ei dagozkie **jasotako jakinarazpenen % 49; etxe**ko animalientzako pentsuei **% 25; kontsumorako animalientzako pentsu konposatu eta osagarri**ei **% 17; eta gehigarri eta aurre-nahasketei % 10.**



Jakinarazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira: **sojarekin egindako produktuak (6), arrain-irina (4), ekilorez egindako produktuak (4) eta txakurrentzako mastekagarriak (10).**

Eranskina. RASFFren bidez, 2021eko 1. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren alerten eta jakinarazpenen laburpen-taula

ARRISKUA	MOTA	KOP	PRODUKTUAK	KOP	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella	34	Arraian-irina	2	<i>Salmonella spp</i>
			Soja-irina	5	<i>Salmonella Senftenberg</i>
				1	<i>Salmonella Llandof</i>
			Koltza-opila	3	<i>Salmonella Agona</i>
			Ekilore-irina	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>
				1	<i>Salmonella spp</i>
			Linazi-irina	1	<i>Salmonella Havana</i>
				1	<i>Salmonella Senftenberg</i>
			Ekilore-pelletak	2	<i>Salmonella spp</i>
			3. kategoriako heqaztientzako irina	1	<i>Salmonella spp</i>
			Maskotentzako pentsuak	1	<i>Salmonella spp</i>
			Sesamo-haziak	1	<i>Salmonella spp</i>
			Serum-hautsa	1	<i>Salmonella spp</i>
			Pentsu ekologikoa	1	<i>Salmonella spp</i>
			Txakurrentzako mastekagarriak	1	<i>Salmonella Derby</i>
				1	<i>Salmonella Thyphimorium</i>
				3	<i>Salmonella spp</i>
				1	<i>Salmonella Virchow</i>
			3. kategoriako oilaskoentzako mekanikoki bereizitako haragia	2	<i>Salmonella spp</i>
			Hegaztien haragi-irina	1	<i>Salmonella spp</i>
			Izokin-esnea	1	<i>Salmonella spp</i>
			Maskotentzako elikagai gordinak	1	<i>Salmonella spp</i>
				1	<i>Salmonella Infantis</i>
	Enterobakterioak	5	Txakurrentzako mastekagarriak	2	
			Maskotentzako pentsuak	2	
			Oilasko-txip biribilkiak	1	

ARRISKUA	MOTA:.	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.
Mikotoxinak	B1 aflatoxina	4	Kakahueteak	1
			Artoaren gluten feed	1
			Txorientzako ekilore-haziak	1
			Maskotentzako pentsuak	1
Metal astunak	Beruna	1	Orein-makiltxo mastekagarriak	1
	Merkurioa	1	Legamia	1
	Fluorra	1	Fosfato modo-di kaltzikoak	1
	Selenioa	1	Txakurrentzako eta katuentzako pentsuak	1
Baimendu gabeko gehigarriak	CBD cannabiadola	4	Maskotentzako pentsuak	2
			CBD-aterakina	1
			Pentsu osagarriak	1
	Aterakinak eta olioak: Thymus serpyllum, Urtica dioica, Sature Montana, Salvia officinalis, Rosmarinus officinalis	1	Erleentzako pentsuak	1
	Baimendu gabeko gehigarriak	5	Erleentzako pentsua	1
			Txakurrentzako eta katuentzako pentsua	1
			Behientzako pentsua	1
Oiloentzako pentsua			1	
Tetraziklinaren presentzia	1	Oilaskoentzako pentsua	1	
Beste batzuk	Ronidazolaren presentzia	1	Pentsu-gehigarrietarako lehengaiak	1
	D bitaminaren kopuru handia	1	Lisina-sulfatoa	
	A bitaminaren kopuru handia	2	Txakurrentzako pentsuak	2
	Gorputz arrotzak: beira-zatiak	1	Hegaztientzako pentsua	1
	Izkiren presentzia	1	Artoa	1
	Orein-adarraren zatiak	1	Kortako hegaztientzako pentsua	1
	Metal-zatien presentzia	1	Txakurrentzako mastekagarriak	1
	Ambrosia spp	2	Txakurrentzako janaria	1
			Artobeltza	1
	Kantaxantinaren presentzia	2	Artobeltza	1
	2	Hegaztientzako pentsua	2	

	Haloxifoparen presentzia	1	Liho-haziak	1
	Etiketa osatu gabea	1	Esne-txerrientzako pentsua	1